

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Eguneroko erronkei eta
proiektu estrategikoei
erantzuteko aurrekontuak**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Azterketa	3
Leku aldaketa	6
Gizarte beharrak	8
Zerbitzuak	12

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Gizarte beharrak, ekonomia eta trantsizio energetikoa bultzatzeko aurrekontuak

“Epe motz eta luzera” begirako proiektuak abian jartzeko eta gauzatzeko helburuarekin osatu ditu udalak 2022. urteko aurrekontuak, Nagore Alkorta alkatearen hitzean. Horretarako, “eguneroko beharrei” erantzuteaz gain, “proiektu estrategikoak” bultzatuko dituzte.

aurrekontuak aintzat hartuta, 39,6 milioikoa izango da aurrekontua.

Inbertsioetarako diru gehiago izango da aurtan, eta gizarte beharrei erantzun, ekonomia sustatzen jarraitu eta ingurumenari lotuta, trantsizio energetikoa bultzatzeko proiektu estrategikoak bultzatzera diru partidak zehaztuak ditu udalak. Etorkizunera begirako aurrekontuak osatu dira Nagore Alkorta alkatearen hitzetan: “Etorkizuneko erronkei gaurtik erantzuten hasteko proiektuak jarriko ditugu abian. Proiektu horiek, batez ere, herritarren ongizateari, herriko eragileen beharrei eta gai estrategikoei loturikoak izango dira”. Hala ere, ez du ahaztu izan nahi ez ohiko egoera batean bizi garela oraindik, eta horrek eregin zuzena duela herritarrengan: “Arazo bat bestearekin atzetik sortu da azken urte eta erdi luzean. Behar gehiago eta berriak ere sortu dira, eta orain artean bezala, okerren pasatzen ari direnei baliabideak bermatzen jarraituko dugu”, gaineratu du.

Urtea hastearekin bat, 2022. urteko udal aurrekontuak indarrean ditu Azpeitiko Udalak. Abenduko ohiko plenoan onartu zituen EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin, eta urtea hasterako erabilgarri daude, bera. 2022. urte honetan, 21,7 milioiko aurrekontua izango du udalak, 2021ean baino %11 gehiago. Aurrekontu bateratua, hau da Kirol Patronatua, Euskara Patronatua eta Azpeitia Berritzenen



Bide horretan, gai estrategikoei anbizioz heldu nahi die, eta Azpeitia 2030 Plan Estrategikoko erronkak izango dira ardatz: "Gizarte beharrak, trantsizio energetikoa, ekonomia, etxebizitza politika ... herri gisa nolako Azpeitia izan nahi dugun eta horretarako erronkak identifikatuta ditugu. Hor daude, menpekotasuna duten pertsonen zaintza ekosistemari loturiko Perdilegin gauzatuko den proiektua edo Ekindar azpeitiarren energia kooperatiba, besteak beste".

"Herrigintza tresna baliagarri eta eraginkorra da azpeitiarren zerbitzura dagoena. Urteari aurre egiteko inoizko aurrekontu handiena dugu, eta ziur nago, proiektu estrategiko garrantzitsuei bultzada berri bat emango diegula, eta indartuta egingo dugula aurrera", zehaztu du.

Leire Goenaga Ogasun Batzordeburuak bizi dugun egoera dela eta "ezegonkortasun" handia dagoela

azpimarratu du eta horregatik, zuhurtzia handiz osatu dituzte aurrekontuak: "Datuek hazkunde ekonomikoa dagoela adierazten digute, eta beraz, sarrerak ere handitu egin zaizkigu aurrekontuetan", zehaztu du.

AZPEITIARRAK ERDIGUNEAN

"Herritarrek erdigunean jarri eta inor bazterrean ez uzteko politikak" egitea dela helburua azpimarratu nahi du Goenagak: "Herri juxtuago, orekatuago eta inklusiboagoa izateko. Horretarako, abian ditugun proiektu eta zerbitzuak hobetu eta proiektu estrategiko berriei anbizioz helduko diegu". Tokiko garapena, gizarte beharrak eta trantsizio ekologikoa bultzatuko dir bereziki aurrekontuen bidez.

Gizarte Zerbitzuetako partida %6 igo da; zehazki, 2.251.496 euro bideratuko dira gizarte beharrei erantzuteko. Gainera, herritarrei eskaintzen zaien arreta zerbitzua hobetzeko helburuarekin,

azpiegitura berriak egokituko dira eta horretarako, inbertsioetatik beste 480.000 euro ere Gizarte Zerbitzu hobeak izateko izango dira.

Gizarte Zerbitzuetako diru partidaren bidez, herritarren beharrei erantzungo zaie harreta eta zerbitzu hobeagoa eskainiz; dagoeneko errealitatea den biztanleriaren zahartzearen ondorioz sortutako erronka eta beharrei erantzungo zaio, arreta eta zaintza hobetuko da, bakardadearen erronkari helduko zaio, mendekotasuna duten pertsonetan jarriko da arreta, etxetz zerbitzua edo eguneko zentroa bezalako zerbitzuak mantendu edo indartuko dira eta mendekotasunaren prebentzioan eragiteko konpromisoa ere berretsi du udalak: "Zerbitzuez gain, dirulaguntza guztiak mantenduko ditugu. Tartean, oinarritzko gizarte beharrei erantzuteko diru laguntzekin". Horretarako, udal diru-laguntzetarako 380.000€ diru partida mantendu da.

INGURUMENEO AURREKONTUA HIRUKOIZTU

Kilometro Oko energia sortuz klima larrialdi egoerari energiaren trantsizioaren bidez heltzeko konpromisoa posible izango da 2022. urtean Azpeitian. Horretarako sortu da Ekindar, azpeitiarren energia kooperatiba: "Energiaren trantsizioaren erronkari, tokiko garapenetik eta herritarrekin batera erantzuteko Ekindar kooperatiba bultzatzeko konpromisoa berresten dugu aurrekontuen bidez", zehaztu du.

Datu ekonomikoek onerako joera hartu badute ere, sustapen ekonomikoan eragiten jarraituko du udalak datorren urtean ere. Hala, sustapen ekonomikorako laguntzak mantendu egingo dituztela azpimarratu zuen: "Hobeto gaudela dirudi, baina tokiko garapenean inbertitzen jarraitu beharra dugu". bide horretan langabeziaren azken datua ekarri du gogora. Aurtengo urrian 7,6koa zen Azpeitiko langabezia tasa, iazko urrian berriz, 9,6koa. Sustapen ekonomikoaz gain, Iraurgi Berritzenera egiten den ekarpena ere azpimarratu du: "Eskualdeko garapenerako plan estrategikoa egingo dugu". Landetan abiatutako azterketari jarraipena emateko partida ere jarri da.

AURREKONTUA ZENBAKITAN

Ogasuna eta kontuak	435.356,59€
Hirigintza eta ingurumena	2.497.500,00€
Hezkuntza eta euskara	1.067.632,47€
Kultura eta gazteria	1.142.100€
Kirola	1.309.134,17€
Gizarte zerbitzuak	2.251.476€
Langileria eta antolakuntza	6. 464.756,30€
Festak	471.000€
Zerbitzu orokorrak.....	4.288.295,13€
Alkatetza.....	296.000€
Ekonomoa, enplegua eta formazioa	1.055.978,09€
Parekidetasuna	215.000€
Baserriak	251.000€
GUZTIRA	21.745.228,75€

Udalaren aurrekontu propioa	21.745.228,75 €
Euskara Patronatua:	743.289,00€
Kirol Patronatua:	1.505.134,17€
Azpeitia Berritzen:	17.091.482,00€
Udalaren aurrekontu orokorra	39.606.210,75€

2022an gauzatuko diren inertsioak



AZPIEGITURAK HOBETZEA

1.

Telefonikako eraikina berritu

Azaroan jakitera eman zuten bezala, Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Perdillegiko eremuan gizarte beharrei erantzuteko azpiegitura berri bat eraikitzea adistu dute. Eredu horretan eraikina egiten hasi aurretik, ordea, eremu horretako hainbat herri eragile sozial, talde eta erakunderen egoitzak leku aldatu beharko dira. Horretarako, besteak beste, Perez Arregi plazako Telefonikaren eraikin zaharra berritzeari ekin dio. Bertan, Udal Euskara Patronatuaren, euskaltegia barne, eta Txolarte aisialdi taldearen egoitza jarriko dira. Horretarako 1.315.523,19€ko inbertsioa egingo du.



2. Soinuaren eremua

Soreasuko sorme guneko soinuaren eremua egokitzeko obrak aurrera doaz. Gune hori egokitzearekin, aurreikusitako sormen eremuaren azpiegitura guztiak kultur sorkuntzarako eginda geldituko dira. Hasitako lan horietarako 521,847,08 euroko inbertsioa egin da. Obren ostean, soinuaren eremua ekipatu beharko da eta horretarako 60.000€ko inbertsioa egiteko diru poltsa ere gorde du udalak aurrekontuetan.



3. Kiroldegiko irisgarritasuna hobetu

Udalak Kiroldegian hainbat berrikuntza lan egitea aurreikusten da 2022. urtean. Hala, lehenik eta behin, irisgarritasun arauetara egokitzeko igogailua jarriko da. Kiroldegiko hiru saolairuetarako (kantxa, harmaila eta solairu nagusia) irisgarritasuna hobetuko da. Horretaz gain aldagelak berritzea ere aurreikusten da. Guztira, kirol azpiegitura hori hobetzeko 224.000€ko inbertsioa egingo da.



4. Haur parkeak hobetu

Azpeitian, haurrentzako 28 haur-parke daude guztira. Jolas parke horiek hobetu eta mantenua hobetzeko helburuarekin azterketa egingo du 2022. Urteak udalak. Azterketa egiteaz gain, hobetzeko beharra duten parkeak pixkanaka-pixkanaka konpontzen eta berritzen ere joango da. Horretan hasteko, 100.000€ko diru poltsa jarri du 2022.urteko aurrekontuetan.



URBANIZAZIOAK BERRITZEA

6. Urbitarte auzoko urbanizatzioa berritu

2022. urtean Urbitarte auzoko 5,6,7 eta 8 zenbakietako etxeatari ingurua berrurbanizatuko da. Zehazki, espaloiak, aparkalekuak eta oinezkoentzako guneak berrituko dira. Horretarako, 270.000euroko inbertsioa egingo du udalak.




5. Skate park berria

Udarako skate park berria izango da Azpeitian. Izarraizko atea parkean azpiegitura berria egitea adostu zuten zaletuek eta udalak eta epe laburrean hasiko dira horretarako lanak. Parke berriak 1.130 metro koadro inguruko pista izango du eta street eta art skateboarding modalitateetarako egokia den azpiegitura egingo da. Bi gune izango ditu, baina lotuta egongo dira. Azpiegiturak hasi berri zein esperientzia duten zaleentzako aukera desberdinak eskainiko ditu, besteak beste. Horretarako, 303.907,61 euroko inbertsioa egingo du udalak.



7. Matxinada kaleko irisgarritasuna hobetu

Anbulategia eta Arana kalea lotzen dituen zubiaren irisgarritasuna hobetzeko falta den fasea gauzatzearekin batera, 1766ko Matxinada kalea egokitzea aurreikusten du udalak aurten. Horretarako, 202.118€ko inbertsioa egitea aurreikusten du udalak.



Indarrean dira 2022ko Ordenantza Fiskalak

Udalaren egoera ekonomikoa eta urteko datu ekonomikoak aztertu, azken urteko bilakaera ikusi eta dagozkion aurreikuspenak egin ondoren, proposamena landu zuen batzorde eta bileretan; azaroko plenoan onartu zituen.

Azaroko plenoan aho batez onartu ziren 2022ko Ordenantza Fiskalak, eta urtea hasieraekin bat indarrean sartu dira. Baina zer dira ordenantza fiskalak? Urtez urte ordenantza fiskalen bidez, udalek urte horretako tasa, zerga eta azpiegitura eta zerbitzuen precio publikoak zehazten dituzte. Horrekin bat, ordainketa horietarako hobariak zeintzuk diren ere

arautzen dituzte. Tasa eta zergen bidezko bilketa, udalaren sarreraren %37 ingurukoa izan ohi da; eta, Gipuzkoako foru funtsetik jasotzen dena %54 ingurukoa. Bide horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak azken aldian publiko egindakoaren errekaudazio aurreikuspen onak dira.

2022. urteko ordenantza fiskalak bi printzipioren baitan osatu dira: zuhurtzia eta zerga aplikazio progresiboa. Zerga bilketaren bidez gastu publikoa finantzatzen du udalak eta udalaren betebeharra da herritarrei ahalik eta kalitate oneneko zerbitzu publiko eskaintzea, hala bizi kalitatea hobetzeko.

Zerga aplikazio progresiboaren bidez, berriz, herriko familiek zein norbanakoen artean ematen den karga fiskala ahalik eta berdinenaz izatea da helburua. Hala, errenta edo irabazi handiagoei oinarri edo tipo handiagoak aplikatzean datza. Zerga aplikazio pro-

gresiboarekin, karga fiskala gutxitzen zaie sarrera edo eros ahalmen gutxien duten herritarrei. Hori bermatzeko diru sarreraren arabera aplikatzen diren hainbat hobari ditu udalak eta Gizarte Zerbitzuen bidez eskaintzen diren Udal Laguntzak.

Guzti horren ondorioz, 2022ko tasa eta zergak eguneratzeko %1,5ean igo dira pasa, zerga eta prezio publikoak. KPlaren igoera baino igoera txikiagoa aplikatu da, beraz. Iaz, gora behera handiak izan zituen Kontsumo Prezioen Indizeak (KPIak), eta udalak batezbestekoa batezbestekoa aplikatzea hobetsi zuen.

HAINBAT SALBUESPEN

Orokorrean tasa, zerga eta prezio publikoak eguneratu egin badira ere, zenbait salbuespen izango dira, eta az dute aldaketarik izango. Gizarte Zerbitzuen

bidez eskaintzen diren menpeko pertsonen etxez etxeko zerbitzuaren tasa eta adinekoen autonomia mantentzeko eskaintzen den Goiz-lagun eguneko unitatearen prezioak bere horretan mantendu dira. Horretaz gain, kirol zerbitzuetan izan diren aforo neurriak aintzat hartuta, kirol zerbitzuetako abonatu prezioak ere bere horretan mantendu dira.

Horretaz gain, ez ohiko egoeraren jakitun, ostalariei zuzenean eragiten dien terrazen tasa ez zaie kobratuko 2022.urtean.

Autoentzako aparkaleku publikoen erabilera bultzatu eta herritar zein auzotarrentzat erraztasunak izateko helburuarekin, Soreasu eta 1766ko Matxinada kaleko aparkaleku publikoetako erabilera baldintzak ere egokitu eta hobetu dira.

HOBARIK ERE BAI

Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren baitan, %50eko hobaria aplikatuko da eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza eraikinetan.

Ibilgailu elektriko eta hibridoentzako hobaria ere badu udalak: Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan, ibilgailu elektrikoek %90eko hobaria dute, eta hibridoek %50ekoa. Horretaz gain, 30 urtetik gorako auto historikoek %100eko hobaria dute. Familia udarietako diru sarreraren arabera hobaria jaso dezakete.

Ekonomia jardueren gaineko zergan, enplegua sustatu edo errazteko helburuarekin hainbat hobari daude indarrean. Jarduera berri bat abian jartzen dutenen kasuan %50eko hobaria dute, kontratu mugagabeak sortzen duten jardueren %30ekoa eta kooperatiba babestuek eta beste hainbat enpresa moldek %50ekoa.

Kirol instalazioetako tarifei dagokionez, familia ugarietako abonuetan diru sarreraren arabera hobaria jasotzeko aukera dute. Erretiratuek, pentsiodunek, langabeek eta lanbide arteko oinarritzko soldata baino errenta baxuagoa duten herritarren hobariak ere indarrean jarraitzen dute.

Ekindar azpeitiarren energia kooperatibako bazkide izateko aurreinskripzioa, zabalik

Azpeitian 450 bat familia eta merkataritza establezimendurentzako Km0ko energia sortzea da helburua; bazkideek kostu prezioak eskuratuko dute energia; gaur egungo energiaren merkatuaren logikatik kanpoko eneregia izango da

Azpeitian bertan energia sortuko duen Ekindar energia kooperatiba eta bere lehen proiektua abian dira. Abenduaren 15ean aurkeztu zuten sustatzaileek beren proiektua eta dagoeneko ehundaka dira kooperatiban bazkide izateko interesa agertu eta aurreinskripzioa egin duten herritarrak. Proiektuak, beraz, hasieratik interesa piztu du herritarren artean.

Gaur gaurkoz, proiektuaren sustatzaileak Iraurgi Ikastetxea, Azpeitiko Ikastola Ikasberri, Karmelo Etxegarai ikastola eta Urola BHI, Kulturaz kooperatiba, Artxara kooperatiba, Usurbilgo Lanbide Eskola, Bertan Merkatarik Elkartea, Azpeitiko Udala eta Ekiolaren bidez, Euskal Energiaren Erakundea eta Klean Ingenieritza dira, baina bazkideak egitean, herritarren kooperatiba izango da Ekindar.

Azpeitia 2030, plan estrategikoaren baitan, herriaren etorkizuna irudikatu zen, norabide bat ezarri eta lanerako erronkak zehaztu. Trantsizio energetikorako bidea zen horietako bat: "Goitik

ez datozen aldaketak behetik aldatzen saiatuko gara", adierazi du Nagore Alkorta alkateak.

Argindarraren prezioa albiste da azken hilabete luzeetan, egunez egun kostua igo eta datu historiko berri bat ezartzen delako: "Izugarrizko prezioak ordaintzen ditugu herritarrok. Injustizia egoera horren aurrean ekitea eta pauso bat ematea dagokigu, ezinbestean", gaineratu du.

Udala ere trantsizio energetikoaren bidean, pausoak ematen ari da. Hala nola, eraikin publikoetako

Bazkide izateko interesa duten herritarrek aurreinskripzioa egiteko aukera dute www.ekindar.eus helbidean

efizientzia energetikoa aztertzen eta hobetzen, argiteria publikoa egokitzen, ikastetxeekin proiektu desberdinak bultzatzen eta enpresek plaka fotovoltaikoak jartzeko diru-laguntza lerro bat ere badu. Aurrera begira, energiaren kontsumoa murriztu eta trantsizio energetikoaren bidean pausoak ematen jarraituko du.

EKINDARREN LEHEN PROIEKTUA

- Ekindar azpeitiarren energia kooperatiba, irabazki asmorik gabekoa izango da. Bazkideen %70a herritarrena izango da eta %30 bestelako bazkide kolaboratzaileena.
- Hiru helburu nagusi izango diru: sentsibilizazioan eragitea; enregiaren prezioaren demokratizazioa bultzatzea eta trantsizio energetikorako pausoak ematea,
- Ekindarren lehen proiektua hektarea bateko plaka fotovoltaikoen parke bat egingo da.
- Sortutako energia sare orokorrera salduko da, eta bazkideek saretik jasoko dute.
- Bazkideek 25 urterako energia izango dute aseguratuta.
- Urrestillan, Kaminazpi deituriko eremuan kokatuko da parkea.
- Herriko 450 familia eta merkatariren energia beharrak asetzea aurreikusten da.
- Lau lagunekoko etxe bateko energia beharrei aurre egiteko 5 panel behar dira
- Bakoitzak bere energia beharrei erantzuteko adina energia erosteko aukera izango du.
- Instalazioa egiteko ingurumen baimen definitiboa otsailean jasotzea aurreikusten da.
- Plakak jartzeaz gain, eremu horretan erletegia eta landare-hazitegia ere ezarriko dira.

Bazkide egiten diren herritarrak diruz laguntzeko diru partida jarri du udalak

UDALAK DIRU LAGUNDUKO DITU BAZKIDEAK

Udalak Ekindar proiektuarekin duen konpromisoaren baitan, 2022ko aurrekontuen bazkide egiten diren herritarrak diruz laguntzeko diru partida jarria du, 250.000€ bideratu dira horretara, zehazki. Proiektua azpeitiarren interes orokorrekoa dela uste du eta bazkideak diruz laguntzea erabaki du.

Laguntza horren bidez, energiaren trantsizioan eragiteko pausoa ematen diren herritarrak lagunduko dira. Laguntza horretaz gain, gainera, okerren pasatzen ari diren eta proiektuan parte hartu nahi duten herritarrentzat laguntza gehigarri bat jartzea ere aztertzen ari dela azaldu zuten.

AURREINSKRIPZIOA ZABALIK

Proiektuan interesa duten eta bazkide izateko interesa duten herritarrek aurreinskripzioa egiteko aukera dute www.ekindar.eus helbidean. Inskripzioa egiten dutenak ez dute ondoren bazkide izateko konpromisorik hartzen, eta bazkidetzat kanpaina hastean, bazkidetzako baldintzak-eta jakiteko kalkuluak egiteko lehentasuna izango dute.

Aurreinskripzioan izena ematen duten guztiei beren gaur egungo eneregia kontratu eta kontsumoa aintzat hartuta, bere azterketa pertsonalizatua egingo zaio. Hala, bakoitzaren kontsumoaren arabera, hasieran egin beharreko ekarpena, eta ondoren hileroko faktura zenbatekoa izango den zehaztuko zaio. Horren ostean erabaki beharko du bazkide izan nahi duen edo ez.



ekindar

Azpeitia argia eta garbia



**GURE ETXEETAN,
GEUK SORTUTAKO
ENERGIA**